

ERREMONTA. Jaialdiak ez ezik, argazki erakusketa ere egingen dute



LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Jaialdietan parte hartuko duten esku-huska, erremonte, pala eta zesta-puntako pilotariak, atzo, Euskalen. Ezkerretik hasita: Goñi III.a, Altuna II.a, Lizaso, Bitoria, A. Lekunberri, Rekalde eta Alberdi I.a.

25. urteurrena ospatuko du Euskal Jai Berri frontoiak

Uharteko pilotalekuak egitarau zabala prestatu du data gogoratzeko

Edurne Elizondo | **UHARTE**

Uharteko Euskal Jai Berri pilotalekuak 25 urte beteko ditu hilaren 17an, eta, data hori ospatzeko, egitarau zabala prestatu du Remonte 2000 enpresak. Jaialdiak, erakusketa bat, mahai-inguru bat eta Burlata, Atarrabia eta Uharteko ikasleentzat jardunaldi berezia prestatu dituzte.

1977ko abenduaren 17an Jesus Abrego pilotari handiak egin zuen Euskal Jai Berriko lehen sarea, ohorezko sarea. Kantxa horretan jokatu lehen partidari Lekunberri eta Urteaga nagusitu ziren Ibero eta Erroren aurrean. Ordukoak gogora ekarri zituzten atzo Remonte 2000 etxeko kideak, eta garai hartan Uharteko Udaleko kide Martin Astrainek.

«Frontoiak erremonte bizi-berritu nahi izan zuen», azpimarratu zuen Remonte 2000ko

EGITARAUA

LARUNBATA

Goizez. Nafarroako Erremonte Txapelketako finala, XXV. Urteurrenako afizionatu mailako torneoaren finala, eta Espainiako Zesta-punta Txapelketako finalerdia. Arratsaldean: Alberdi I.a-Goitia eta Konpa-Felix (zesta-punta). Ezkurra-Urretabizkaia II.a eta Altuna II.a-Lizaso (erremonte). Titin III.a-Goñi III.a eta Olaizola I.a-Ruiz (esku-huska). Unda I.a-Lujan eta Casado-Rekalde (pala).

IGANDEA

Espainiako Zesta-Punta Txapelketako finalak. Aurretik, erremonte partidak.

ASTEARTEA

Urteurrena dela-eta jaialdia antolatu dute. XXV. Urteurrenako Torneo finala jokatu dute Altuna II.a-A. Lekunberri eta Bitoria-Lizaso. Ondoren, Ezkurra-Txikuri eta Zeberio II.a-Eizagirre ere ariko dira.

Juan Antonio Ercillak. Onartu zuen batzuetan Hernanino Galarretari eman diola enpresak lehentasuna baina azpimarratu zuen «Euskalen aldeko apustu

garbia» egin izan duela beti. Egun Uharteko Udalaren esku dago frontoia.

Jaialdiak eta bestelakoak

Urteurrena ospatzeko, egitarau zabala prestatu dute. Pilotari nabarmenenak ariko dira, ez bakarrik erremontean, bai eta zestaz, eskuz, eta palaz ere. Dagoeneko kantxa utzi duten pilotariak ere izanen dira protagonistak.

Horretaz gain, erremontean historiari buruzko argazki erakusketa egingen dute bihurtik urtarilaren 6a bitartean frontoian bertan. Tartean ikusi ahal izanen dira Abregok eta Salsamendik 1944ko finalean erabili zituzten zestak.

Bestalde, Erremonteko Txapelketako hainbat partida Euskal Jai Berri jokatu dira, hilaren 21etik aurrera. Finala ere Uharteko pilotalekuan izanen da, otsailaren 15ean edo 22an.

KONTRAKANTXATIK

Juan Inazio Zulaika

Ikuskizunaren mesedetan

Baditugu finalistak, hemen dira. Denok nahi eta denok amesten genituenak, Unanuek izan ezik. Abel Barriolak eta Aimar Olaizolak emango diote bukaera Lau t'erdiko Txapelketari. Aseta geldituko da, beraz, pilotazalearen nahia, gora egingo du ikus-entzuleen audientziak, «ikusizunaren mesedetan» egiten omen da guztia, eta biribil atera zaie. Ni, ordea, beste behin konfundituta gelditu naiz, askotan gertatzen zaidan bezala.

Inazio Ramonet *Le Monde Diplomatique*-ko zuzendariak *La tiranía de la comunicación* liburuxkan zera dio, besteak beste: «Gaur egun hedabideetan eskaintako informazioan ez da egia bilatzen; ikuskizuna, hau da, entretenimendua da helburu. Hitzak, testuak, ez du jada baliorik. Irudiak bilakatu dira jendearen informazio iturburu nagusia. Irudien bitartez lortuko dute ikus-entzuleek bilatzen duten poz bide edo betetze puntua. Ikusten ari garena bilakatzen da benetako egia, eta, jakina, bene-benetako egia hori guztia nork egin du? Zer bitartekorekin? Non? Zergatik? Ondorioak? Ezkutuan gelditzen da. Informa-



JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

Unanue eta Olaizola II.a, herenegun, Labriten.

tzeko sistema honek informazioa merkantzia bihurtzen du. 'Ikuste-ulertzea' sisteman oinarrituta hankaz gora jartzen askatasuna eta ondorioz demokrazia bera».

Konfundituta eta aldi berean haserre antzera sentitu nintzen herenegun Aimar Olaizolaren eta Mikel Unanueren arteko partida ikusten ari nintzela. Izan ere, sekulako erreposoa ematen ari zitzaion pilotari gaztea beteranoari, gaizki omen zeukala eskuin eskua Aimarrek, oso gaizki. Han, baina, ez zen inondik ere sumatzen horrelakorik. Ederki astintzen baitzuen pilota. Eta ni engainatuta bezala sentitu nintzen, ez Aimarrekin nire bururekin baizik. Aurreko asteko irudien eraginaz Aimarren eskuaren egoera larria zela-eta atzerapena aldarrikatu nuen. Zilegizkoa zela halako mesedea egitea zazpi neurketa jarraian irabazita zitzenari. Erratuta nengoen. Emozioak sortutako lehenengo inpresioaren amuari kosk egin niola, nire satisfakzio partikularra soilik bilatuz, egia, justizia, benetako informazioa, saihestuz. Azken finean, arriskuan ikusten bainuen hain gustuko final bat, Olaizolaren eta Barriolaren artekoa. Ikuskizunaren aitzakian, nik ere EPELe sortutako arautegiari bizkarra ematen nion. Kontua ez da bi egun edo astebeteko atzerapena. Eskuko mina neurtu litekeen hala ez, Aimarrek demostratu digun bezala. Kontua bestelakoa da, printzipio batean oinarritutakoa, giza legez jokatzeko arauekin, guztientzat eginiko arauak bide batez. Unanueren aukerak zapuzteaz aparte, urratu egin dira beraren eta gainerako parte-hartzaileen eskubideak. Errespetu falta makillatu nahi badute ere esanez bi eguneko atzerapenaz egutegia ez dela ukitu. «Ikuskizunaren mesedetan» oinarritutako sisteman egindako maniobra izan da, azken finean, eufemismo bat besterik ez errentagarritasuna, helburu ekonomikoak, oroz gain ezarritu. Arrazoi osoz agertu du Mikel Unanuek bere haserre, alde aurretik galdua zuen eztabaidan. Aurrean arerio gehiegi izan ditu. Entrenimendu hutsa bilatzen duten zaleak, enpresaren interesak, eta, batik bat, pilotari gazte bat: Aimar. Kantxan zoragarri hari dena. Kantxetatik at azeria baino bizkorrago. Gutxi baltz, bera da enpresaburu merkantzia preziatuena, «ikusizuna» bermatzeko.

TXOKOAN

PALA

Astlehenean jokaterik izan ez zutena gaur jokatu dute Rekaldek eta Iriondok

Euskadiko Buruz Buruko Pala Txapelketako final-laurdenetako partida jokatu dute gaur Juan Rekaldek eta Javi Iriondok, Bilboko Deportivo pilotalekuan. Joan den astlehenean jokatu behar zuten berez partida hori, baina gaur arte atzeratu zuten Rekaldek sukarra zeukalako. Atzelari nafarra osatu da, eta bera izango da favoritua finalerdietako ligaxkara sailkatzeko.

JAIALDIK

GAURKO PARTIDAK

GALARRETA. 16:00.

Zeberio III.a-Etxeberria III.a.
Ezkurra-Urretabizkaia II.a / Zeberio II.a-Eizagirre.
Elizalde-Etxabe / Iñigo-Txikuri.
Bitoria-Urko / Urretabizkaia-Ekiza.

DEPORTIVO. 17:00.

Urkijo-Leunda / Zarraga-Garma.
Urkijo-Lujan / Unda I.a-Beldarrain.

Euskadiko Buruz Buruko Txapelketa: Rekalde / Iriondo.